



La Salle

2021-2022 IKASTURTEA

ETXEAN ZAUDE

Ilusioa berriturik eta motxilak energiaz beterik egiten diogu ongietorria 2021-2022 ikasturteari. Etxean zaude, salletarron artean, eta zu zara proiektu handi hau posible egiten duen pertsonetako bat.

Ikasturtea hastean, La Sallek bere fundatzaile La Salleko Joan Bautistak agindutako misioa jartzen du erdigunean; hala, La Salle ikastetxe bakoitzak etxean bezala hartzen ditu pertsonak, heziera osoa jaso dezaten, proposamen ebanjelizatzaile batean oinarrituta. La Sallek hezkuntza eredu berritzailea du eta ez da irakaskuntzara mugatzen, bizitzarako ikasketari begiratzen baitio. Eskola bizitzaren parte dela deritzogu eta hezkuntza, berriz, mundua eraldatzeko tresnarik onena.

Jakitun gara aurreko ikasturteetan zailtasun handiak gainditu ditugun arren, hortxe ditugula zain oraindik erronka handiak, baina horrek elkarrekin aurrera egiteko arrazoi gehiago eta handiagoak ematen dizkigu oraindik. Hezitzaileak, ikasleak eta familiak zarete hartzen gaituen etxe handi honen oinarri eta zutabeak, guztiok dugu gure leku berezi eta garrantzia guztion etxean. Era berean, gure etxeak badu beste bereizgarri bat: laguntza ematen diogu premian dagoenari.

Gure hezitzaile guztiak (irakasleak eta irakasle ez direnak) gure ikasleen heziketan gidari onenak izateko ahaleginean ari direnez, La Sallen formazio bidean diren haur eta gazteak protagonista dira beren hezte prozesuan.

Ikasleak, batez ere behartsuenak, dira erakunde honen izateko arrazoia, eta horietan jartzen dugu arreta beren gaitasunak eta trebetasunak garatzeko. Lan horretan, beti dugu gogoan mundua leku bidezkoagoa eta solidarioagoa egiteko gai diren pertsonak hezi nahi ditugula.

Familiak, berriz, duten preziatuena uzten dute gure esku, eta beti eskertzen diegu bihotzez gure aldeko hautua egin izana. Horren jakitun, ondoan izan nahi ditugu familiak, eskola honen partaide izatea nahi dugu, bai ikasturte berri hau abian jartzen dugun garaian, bai aurrerantzean ere.

Ongi etorri La Sallera! Ongi etorri ikasturte berrira!

ONGI ETORRI ETXERA!

Barrutiko Animazio Taldea

